

## 4. DIRU ITURRIAK



Gure aplikazioak eskainiko duen zerbitzua guztiz dohainekoa izango da. Ez diegu ezer kobratuko gure bezeroei aplikazioa deskargatzerako orduan, horrelako zerbitzu batengatik ez dela ordaindu behar uste dugulako.

Proiektua aurrera eramateko inbertsio bat egin behar dugu. Distantzia-sektoreak erosteko eta aparkalekuetan instalatzeko dirua behar dugulako. Distantzia-sentsore pack bakoitzak 9,99€ balio du Amazon-en.

Inbertsioa egiteko, behar dugun dirua lortzeko bi bide erabiliko ditugu. Alde batetik, Internet bidezko “Crowdfunding” (<https://www.verkami.com>) erabiliz, 5000€ eskatuko ditugu. Jendeak gure proiektuaren aurkezpena eta helburuak ikusteko aukera izango du, eta nahi izatekotan ekarpen bat egiteko aukera izango dute. Ekarpina egiten dutenei eskerrak emango dizkiegu eta ekarpenaren arabera ordainsari bat izango dute. Bestetik, beste bide bat guk dirua jartzea izango da, eta erabaki dugu bakoitzak 1000€ inbertitzea.

Azkenik, hilero gure sarrerak beste bi iturri izango dute: gure aplikazioaren bezeroen informazioa beste enpresa batzuei salduko diegu (termino eta baldintzetan onetsiko dute), beraiek datu horiek erabiltzeko (Big Data). Pertsona bakoitzaren datuengatik 5 eta 15€ bitartean irabazi dezakegu. Eskaintza hau interesatuko zaie konpainia telefonikoei eta beste hainbat enpresei. Appear jarriko dugun publizitatea diru sarrera suposatuko du ere bai.

